Kualitate
LANTALDEA
Diputazio kalea 2-2 esk 48009
Bilbao 94 410 48 49
www.kualitate.com

# EMAITZEN TXOSTENA

**DATU BABESARI BURUZKO AZTERKETA KUALITATIBOA:**

**DATU BABESAREN GAINEKO AZTERKETA SOZIOLOGIKOA FITXATEGIEN ARDURADUNEI EAE-KO ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDE PUBLIKOETAN.**

**EMAITZEN TXOSTENA**

**2012ko otsailaren 16a**

# AURKIBIDEA


1. Fitxa teknikoa 3

2. Udalerriak eta datu babesa 11

3. Aldundiak eta datu babesa 67

4. Eusko Jaurlaritza eta datu babesa 113

5. Bukaerako hainbat gogoeta 166

# Fitxa teknikoa

# 1. Fitxa teknikoa: ikerketaren gaineko azalpena

- ✓ **2011.** urtearen hasieran Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak azterketa kuantitatibo bat egin zion Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.

- ✓ Azterketaren helburua zen hobeto jakitea EAEko administrazio eta erakunde publikoetan **datu pertsonalen fitxategien arduradunek datu pertsonalen babesari buruz zuten ezagutza eta agertzen zituzten jarrerak zer-nolakoak diren.**

- ✓ Azterketari esker, erakunde horiek datu babesari buruzko eta datu babesarekin duten harremanari buruzko **zenbait elementu kritiko atzeman ziren**.

- ✓ Fase kuantitatiboa egin ostean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ikusi zuen ordura arte aztertutako erakundeek identifikatu zituzten **elementu kritikoen zergatiak eta jatorria sakonago ezagutu** behar zirela. Eta horregatik, **ikerketa kualitatibo bat egitea** pentsatu zuen. Ikerketaren emaitzak txostena honetan jaso ditugu.

# 1. Fitxa teknikoa: ikerketaren helburuak

- Hona hemen ikerketaren xede orokorra:
  - **Ikerketa kuantitatiboan antzemandako intereseko gaietan sakontzea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak sustatzeko moduko hobekuntza ekintzak identifikatu** ahal izateko, EAEko administrazioek eta erakunde publikoek gero eta hobeto optimizatzeko datu pertsonalen kudeaketa.

- Eta hortik abiatuta, helburu zehatzago hauek sakonago aztertu dira:
  - **Identifikatutako arazo handienak zein diren jakin**
  - **Jardunbide egokiak edo arrakasta izan duten esperientziak identifikatzea**
  - **Aztertutako kolektiboak kontuan hartuta, bakoitzak dituen premia berezietan sakontzea.**

# 1. Fitxa teknikoa: Metodologia

- ✓ Fase kualitatiboa egiteko, ondoko azterketa aldiak egin beharra zegoela ikusi zen.
- ✓ Ikerketa kualitatiboaren ikuspuntutik egin beharreko ikerketaren oinarrian hobekuntza zirkuluen filosofia zegoen, eta honako eskema orokorra izan zen abiapuntua:




**HONAKO EMAITZA LORTUZ: HAINBAT HOBEKUNTZA EKIMEN DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOARENTZAT, EAE-KO ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDE PUBLIKOETAKO FITXATEGIEN ARDURADUNEKIKO**

# 1. Fitxa teknikoa: Metodologia

✓ Ikerketaren helburuak osatzeko, Kualitate Lantaldeak ondo bereizten diren bi fase burutu ditu:

**1. FASEA: EGOERAREN DIAGNOSTIKOA: GAIAK ETA INTERESEKO HELBURUAK IDENTIFIKATZEA**

- ✓ **Ikerketa kuantitatibotik eskuratutako datuak aztertzea, honako emaitzak lortzeko:**
  - ✓ Aldez aurretik finkatutako helburuak oinarri hartuta, honakoak zehazten dituen dokumentu bat:
  - ✓ Azterketa kualitatiboan zein alderdi edo aldagai diren sakondu beharrekoak: ikerketako galdera garrantzitsuenak.
  - ✓ Zehaztea zein diren lehentasunezko alderdiak helburu bakoitzari dagokionez: galderak kolektibo bakoitzeko.
  - ✓ Fase hau Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak burutu eta garatu du Kualitate Lantaldearekin koordinatuta.

# 1. Fitxa teknikoa: Metodologia

**2. FASEA: LANDA LANA EGITEA**

✓ Teknika kualitatibo bat aukeratu da, **diskurtsoa gai zehatzetan fokatzen laguntzen duelako, kolektibo homogeneoen arteko elkarreragina sustatzen duelako eta hobekuntza ekimenak eskuratzea: Talde dinamikak edo Focus Group**.

✓ Ikerketa teknika horrek diskurtsoetan sakontzea ahalbideratu du, horretarako errealitatea dekodifikatzeko eta interpretatzeko baliatzen diren eta zenbait gai eta galderen aurrean duen jarreraren oinarrian dauden argudioen funtsak ematen dituzten esanahi-esparruak aztertuz.

✓ Talde-dinamiketan egoera aproposa sortzen da landu nahi diren gaien gaineko jarrera, pertzepzio eta argumentarioak sakontasunez edo azaletik adierazteko. **Joerak, etorkizuneko eskaerak eta hobetzeko arloak prospektatzeko erreferentziazko teknika da gizarte ikerketan, eta erabiliena.**

# 1. Fitxa teknikoa: Metodologia

**2. FASEA: LANDA LANA EGITEA**

- ✓ Parte hartzaileen profila (administrazio publikoko profesionalak) eta aztergaia (datu pertsonalen babesa) kontuan hartuta, eta ikusita dinamizazioa oso konplexua zela, erabaki genuen talde txikiagoak egitea, 6 pertsonakoak, taldekideen arteko elkarreragin egokia a bermatzeko.
- ✓ **Taldeak bi aldagai kontuan izanda banatu ziren:**
  - ✓ **Erakunde mota**
  - ✓ **Datu babesaren arloko aurrerapen maila.**

# 1. Fitxa teknikoa: Metodologia

**2. FASEA: LANDA LANA EGITEA**

✓ **Zehatz esanda 6 talde dinamika egin dira, honela banatuta:**

| | Aurrerapen maila | | |
|---|---|---|---|
| | **Aurreratuak** | **Ertaina** | **Oinarrizkoa** |
| **Udalak** | Talde dinamika 1 | Talde dinamika 1 | Talde dinamika 1 |
| **Foru aldundiak** | Talde dinamika orokor 1 | | |
| **Eusko Jaurlaritza** | Talde dinamika 1 (datu pertsonalen kudeaketa aurreratua duten zenbait sailekin) | Talde dinamika 1 (datu pertsonalen kudeaketa ez hain aurreratua duten zenbait sailekin) | |

✓ **Bileretarako deiak Kualitate Lantaldeak egin zituen, baina, horretarako, lehendabizi Datuak Babesteko Euskal Bulegoa deitutako interesdunekin jarri zen harremanetan. Prozesu guztian zehar Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1997 Lege Organikoaren printzipioak bere dira.**

# 2. KAPITULUA

## Udalerriak eta datu babesa

# 2. Udalerriak eta datu babesa

- ✓ Horren ostean, udal esparruan datu babesaren gaineko azterketa bat egin zen.
- ✓ Udalerriekin zer ikusia duten datu babesaren arloko alderdi guztiak ikusi ziren.

**Zein datu kudeatzen dituzten**

**Datu babesaren kontzeptua**

**Datu babesaren praktika**

**Datu babesaren gaineko araudia**

**Datuak Babesteko Euskal Bulegoa**

# 2.1. Zein datu kudeatzen dituzten

**Zein datu kudeatzen dituzte udalerrian?**

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.1. Zein datu kudeatzen dituzten

### Zein datu kudeatzen dituzte udalerrietan?

✓ Udaletan bertan biltzen diren datuei dagokienez, diskurtsoa kontuan hartuta, tipologia bi bereizten dira:

***Bertan erabiltzeko biltzen dituztenak***

Udal barruan kudeatzen diren datuak dira. Datuak izapidetzeaz eta zaintzeaz ere udala bera arduratzen da, horretarako dituen protokoloen bidez.

***Beste erakunde batzuentzat biltzen dituztenak***

Udalak egiten duena da herritarrak beste erakunde batzuetan egin beharreko izapideak bertan egin, dagokion erakundearen jarraibideak betez.

✓ Horren ondorioz sarri datu bikoiztasunak gertatzen dira eta lan karga handia udalentzat.

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.1. Zein datu kudeatzen dituzten

**Zein datu kudeatzen dituzte udalerrietan?**

**ESAN DAITEKE ….**

Hona udalek kudeatzen dituzten datuen ezaugarriak:

Datu kopurua oso handia dela

Era eta mota askotariko datuak direla

**Horietako asko herritarrenak dira eta beste asko udalaren barne funtzionamenduak sortutakoak dira, eta horrek zaildu egiten du prozesua.**

# 2.2. Datu babesaren kontzeptua

**Zer da datu babesa udal fitxategien arduradunen ustez?**

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.2. Datu babesaren kontzeptua

**Zer da datu babesa udal fitxategien arduradunen ustez?**

✓ Datu babesak sentipen positiboak eta negatiboak sortarazten dizkie. Zergatik gertatzen da hori? Hona arrazoiak:

Batetik, datu babesa era positiboan baloratzen da herritarrentzako eta haien intimitatearentzat dakartzan aukeren eta onurengatik.

↓

**HOBETZEKO AUKERA**

Baina, bestetik, datu babesa dela- eta kritikak agertzen dira, eguneroko udal kudeaketari eta eraginkortasunari zailtasunak eta trabak jartzeagatik.

↓

**PROZESUAK MOTELDU**

# 2.3. Datu babesaren praktika

**Zertan datza datu babesak?**

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dira datuak?

- ✓ Kapitulu honetan datu pertsonalen babesa aztertuko da udalerrietako datu arduradunen diskurtsotik jasotako bi ikuspegitatik abiatuta.
- ✓ Datu babesaren kudeaketari dagokionean, bi tipologia erabiltzen dira:
  - ✓ **Prozedurazkoak elementuak:** udalerrian ezarritako protokoloekin zer ikusia duten alderdiak.
  - ✓ **Prozedurazkoak EZ diren elementuak:** Udalaren barruko antolaketarekin zer ikusia duten alderdiak.

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dira datuak?

✓ Prozedurazko elementuek erakusten duten zein den datuek egiten duten ibilbidea udal administraziora heltzen direnetik. Udalerrietako datuen arduradunek garrantzitsutzat jotzen dituzte:

**Datuak jasotzea**

**Izapidetzea eta barne kudeaketa**

**Artxiboa eta zaintza**

**Fitxategiak deklaratzea**

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dira datuak?



*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

**Datuak biltzea**

0. Sarrerako prozesua

1. Espedientea irekitzea

2. Datuak hartzea
   - Berehalako digitalizazioa
   - Eskaneatzea
   - Paperean jasotzea

3. Izapidetzen hastea eta datuak jasotzen bukatzea

# 2. Udalerriak eta datu babesa
## 2.3. Datu babesaren praktika

## Nola kudeatzen dira datuak?



*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

### Datuak jasotzea

Datu babesa dela eta, une honetan ...

✓ Udaletxeetara datuak heltzen direnean **aldez aurretik ezarritako protokoloa betetzen da eta espediente zenbakia ezartzen da** udaletxean izapidetzeko eta izendatzeko. Hala ere, datu babesa ez da beti berdin egiten:

✓ Datu babesari dagokionez, desberdintasunak datuak jasotzeko modutik datoz:

**Datuak hartzea** →
- **Berehalako digitalizazioa**
- **Eskaneatzea**
- **Paperean jasotzea**

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dira datuak?



*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

**Datuak biltzea**

✓ **Datu babesari** dagokionez, datuak jasotzen dauden desberdintasunek zer ikusi zuzena dute datu bilketa egoteko moduarekin:

Datuak babesteko bulegoetan altan emandako fitxategiak batez ere informatikoak dira, eta horrek esan nahi du egoera honelakoa dela:

**Datuak biltzea** → **Berehalako digitalizazioa** → **Ia fitxategi guztiak deklaratuta**

**Datuak biltzea** → **Eskaneatzea** → **Fitxategi batzuk deklaratuta**

**Datuak biltzea** → **Paperean jasotzea** → **Fitxategiak deklaratu gabe**

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dira datuak?



*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

**Datuak biltzea**

**HOBETZEKO ARLOA**

**Prozesua informatizatzea**

- Ikusi eta gero udaletan datu babesaren garapena zuzenean lotuta dagoela datu bilketaren prozesuarekin, komenigarritzat jotzen da arreta berezia jartzea prozesuen digitalizazioari buruzko protokolo gutxien duten udaletan.
- Beraz, badirudi garrantzia handia duela udalerriei jakinaraztea oso garrantzitsua dela **ohiko prozesurik oinarrizkoenak informatizatzea**.

**Zenbat eta digitalizazio gutxiago orduan eta datu babes gutxiago.**

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.3. Datu babesaren praktika

## Nola kudeatzen dira datuak?



### *PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

**Izapidetzea eta barne kudeaketa**

- ✓ Datu babesa egoerarik okerrenean dagoen unea da.
- ✓ Datuak izapidetu bitartetan administrazioan zehar egiten duten "ibilbideak" maiz datu babesa urratzen du.
- ✓ Udal langileek diote hala gertatzen dela ondoko bi horien artean aukeratu behar delako ...

**Udal zerbitzu eraginkorra versus datu babesa**

- ✓ Egoera horren aurrean herritarrari eman behar zaion zerbitzuaren eraginkortasuna segurtasun neurrien aurretik jartzen da.

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dira datuak?




*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

**Izapidetzea eta barne kudeaketa**

**HOBETZEKO ARLOA**

**Barruko izapidetze prozesua**

- ✓ Egoera ikusita ematen du joan-etorrian dabilen dokumentaziorako **jardute protokoloak diseinatu eta inplementatu behar direla**, eta behar bezala uztartuta egon beharko dutela udal funtzionamenduaren eraginkortasunarekin.
- ✓ Espedienteen pribatutasuna babesten duten mekanismoak diseinatzea, baina udalen egunerokotasunean eragin gabe.

**Eraginkortasuna versus Protokoloak**

**Lan handiagoa ez eman eta trabarik ez jarri**

*"Protokolo guztiak zorrotz beteko bagenitu, udala gelditu egingo litzateke"*

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dira datuak?



*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

**Artxiboa eta zaintza**

- ✓ Datuak eta espedienteak kudeatu eta gero, artxibatu egiten dira.
- ✓ Horrekin lotuta bi unibertso bereizten dira:

**ARTXIBO INFORMATIKOA** | **PAPEREZKO ARTXIBOA**

- ✓ Artxibo tipologia bi horiek **eredu eta ezaugarri guztiz desberdinak** dituzte datu babesari dagokionez. Hona hemen:

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dira datuak?



*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

**Artxiboa eta zaintza**

✓ **Udalerri gehienetan artxibo mota bi daude:**

**ARTXIBO INFORMATIKOA**

✓*Badira artxibo horiek nola erabili dioten protokoloak.*

✓*Datu babesa garatu ahala protokoloak ere bai.*

✓*Arazoak daude artxibo horietarako sarbideetan murrizketak jartzeko orduan, udaletan baliabideak falta direlako. Horren arrazoia udal eraginkortasuna da.*

**PAPEREZKO ARTXIBOA**

✓*Datu babesak duen arazo larriena da.*

✓*Datu kopurua handiak dira eta maiz haien gaineko kontrola eskasa izaten da.*

✓*Ez dago oso argi nola ezarri behar zaien datu babesa.*

***Papera da artxiboari dagokionez datu babesaren arloko arazorik handiena.***

# 2. Udalerriak eta datu babesa
## 2.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dira datuak?




*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

**Artxiboa eta zaintza**

**HOBETZEKO ARLOA**

**Paperezko artxiboak babestea.**

✓ Udaletan dauden paperezko artxiboen bolumena hain da handia, datu babesak ez duela asebetetze nahikotasunik.

**Artxibo informatikoetarako irisgarritasuna.**

✓ Komenigarria da azpimarratzea fitxategi informatikoak babestu egin behar direla pasahitz pertsonal eta besterenezinen bidez udalean.

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.3. Datu babesaren praktika



### Nola kudeatzen dira datuak?

*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

**Deklarazioa**

- ✓ Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Fitxategien Deklarazioak 3 maila ditu:
  - ✓ ***DEKLARATUTAKO FITXATEGI INFORMATIKOAK:*** Sortu zirenean deklaratutako fitxategiak dira. Fitxategi horien edukia geroago eguneratu ziren Bulegoan.
  - ✓ ***DEKLARATU GABEKO FITXATEGIAK EDO ZATI BATEAN DEKLARATUTAKOAK:*** Sortu zirenean edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoak aginduta deklaratutako fitxategiak dira. Fitxategietan aldaketak egin dira, baina ez dira jakinarazi. Batzuk Datuak Babesteko Espainiako Agentzian deklaratu zituzten, baina ez Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.
  - ✓ ***PAPEREZKO FITXATEGIAK:*** Paperezko fitxategiek ezaugarri eta zailtasun bereziak dituzte, horregatik ez da erraza izaten horiek kontrolatzea, eta gehienetan ez daude Bulegoan deklaratuta.

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dira datuak?



*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

**Deklarazioa**

**HOBETZEKO ARLOA**

**Fitxategiak deklaratzea eta eguneratzea**

✓ Komenigarria ematen du udalerrietako fitxategiak deklaratzeko prozesua estandarizatzeko eta hedatzeko ahalegina egitea. Hori eginda hobeto kontrolatu eta babestuko direlako.

✓ Ahalegina bereziki honako esparruetan egin behar da:

**Lehendabizi paperezko artxiboak**

**Bigarrenik jatorrizko fitxategietatik eratorritako fitxategi informatikoak**

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dira datuak?

✓**Prozedura elementuak ez direnen** artean badira alderdi bi udaletako datuen arduradunek nabarmendutakoak:

**Datuen arduradunaren figura**

***eta***

**Herritarrekiko harremana**

# 2. Udalerriak eta datu babesa
## 2.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dira datuak?

*PROZEDURAZKOAK EZ DIREN ELEMENTUAK*

**Datuen arduradunaren figura**

✓ Datu babesaren arloan zenbat eta aurreratuago egon udala, orduan eta sendoagoa da datu babesaren arloko arduradunaren figura. Hona udal motak:

✓ **Aurreratuenak**: badute nolabaiteko formaltasunez izendatutako pertsonaren bat datu babesaren arloan. Horrek prozesuak erakundetu egiten ditu eta erraztu egiten du gai honetan aurrerapenak egitea.

*"Sailean badago horretarako izendatutako jendea"*

✓ ***Ertainak***: *badute bestelako lanez gain, horretan ere aritzen den pertsonaren bat, eta pertsona horrek lan gehigarri bat bezala hartu du datu babesa.*

*"Gure kontura utzi duten beste ardura bat"*

✓ **Oinarrizkoak**: kontua beste era batera ikusten dute. Ez dagoenez bultzada politikorik ez baliabiderik, fitxategien arduradunak "halabeharrez" dira arduradun: inork ez ditu aukeratu, eta etsipenez hartu dute ardura.

*"Baten batek egin behar du, eta niri egokitu zait"*

# 2. Udalerriak eta datu babesa
## 2.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dira datuak?



*PROZEDURAZKOAK EZ DIREN ELEMENTUAK*

**Herritarrarekiko harremana**

- ✓ Datu babesak eragina dauka herritarrek udaletxearekin dituzten ohiko harremanetan eta eragina du harremanetan, aldatu egiten baititu.
- ✓ Herri txikietan batez ere, **udaletxea herritarrak batzeko lekua ere izan ohi da.**
- ✓ Datuak Pertsonalak Babesteari buruzko Legea onartu zenez geroztik, **udal langileek aldatu egin behar izan dituzte herritarrarekiko harremanak, eta lehen eman egiten zizkieten datuak orain ukatu egin behar izaten dizkiete, edo lehen zabalik zeuden esparrutarako sarbideak murriztu egin behar izan dituzte.**

*"Alkatea jaietan lagunekin etortzen da, eta espedientea begi bistan egoten dira"*

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dira datuak?

✓ **PROZEDURAKOAK EZ** DIREN ELEMENTUEI dagokienez, honakoak ikusi ditugu datu babesa dela eta:

✓ ***Datu babesa zenbat eta aurreratuago egon, orduan eta aukera handiagoa dago pertsona bat izateko izendatuta kontu honetarako***.

✓ *Era berean, ikusi dugu* ***datu babesa zenbat eta garatuago egon, orduan eta irregulartasun gutxiago daudela udaletxea eta herritarra lotzen dituen prozeduretan***.

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dira datuak?



**PROZEDURAZKOAK EZ diren elementuak: .**

**HOBETZEKO ARLOAK**

✓ Hona hemen prozedurazkoak EZ diren hobetu beharreko alderdiak:

**Datuen arduradunak izendatzea**

*Datu babesaren esparruan **arduradun bat izendatu** beharra.*

**Herritarrari ematen zaion informazioa mugatzea**

*Udalak herritarrekin duen eguneroko harremanetan* **zein informazio eta datu zehatzen dituen mugak finkatu beharra.**

# 2.4. Datu babesaren araudia

**Nola ikusten da datuak babesteko araudia udalerrietan?**

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.4. Datu babesaren araudia

### Nola ulertzen dituzte araudiko zenbait elementu?

1. Datu babesaren arloko araudia **urrutiko kontutzat hartzen da udalerri gehienetan**.



2. **Ulertzen zaila eta udalean ezartzen zaila den arautzat** jotzen da.

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.4. Datu babesaren araudia

### Araudiaren arloan zer da hobetu behar dutena?




**HOBETZEKO ARLOAK**

**Araudia ezagutzea**

✓ **Ikastaroak** egitea aproposa izango litzateke udaletxeak datu babesaren dinamikara erakartzeko.

**Hizkera teknikoa**

✓ **Legedia hobeto ulertzen den hizkerara egokitzea eskatzen dute**, udaletxeen eguneroko martxan errazago interpretatu eta ezarri ahal izateko.

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.4. Datu babesaren araudia

### Araudiaren arloan zer da hobetu behar dutena?




**HOBETZEKO ARLOAK**

**Legeak hierarkizatzea**

✓ Lege eta arau berriak agertzen direnez, **badirudi udaletxeei esan egin behar zaiela zein lege dagoen besteen gainetik, datu babesari dagokionez**. Horretarako, gidaliburu eskematiko bat egin daiteke zalantzak argitzeko.

✓ Legeen artean dauden bateraezintasunen gaineko azalpenak ematea.

**Legedia versus eraginkortasuna**

✓ Datu babesaren arloko **legedia eta toki administrazioen ohiko martxa eta herritarrei ematen dien zerbitzua uztartzeko** ahalegin egin behar dela ematen du.

✓ **Datu babesaren arloko legediaren muga argiak finkatu, udaleko lana errazagoa izan dadin.**

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.4. Datu babesaren araudia

### Nola baloratzen dira araudiaren zenbait arlo?

✓ *Datuak babesteko araudiarekin lotutako hainbat elementu garrantzitsu aztertuko ditugu segidan:*

*Hona hemen elementuak:*

**DATUEN ERABILERA**

**DATUEN JABETZA**

**DATUAK LAGATZEA**

**DATUEN ERABILERA OKERRA**

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.4. Datu babesaren araudia

### Nola ulertzen dituzte araudiko zenbait elementu?

✓ Segidan grafiko kualitatibo bat jarri dugu, eta bertan dago adierazita printzipio bakoitza zenbateraino bete eta bereganatu duten.




Datuak erabiltzea naturaltzat hartzen da, baina ematen du **datuen jabetzaren, datu lagatzearen eta datuen erabileraren esparruak hobetzeko alderdiak dituztela**.

***Horregatik, datuen erabilera eta kudeaketa egokia egiten bada, funtzionarioen "arduragatik" da, eta ez hainbeste araudi jakin edo ezartzeagatik.***

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.4. Datu babesaren araudia

### Nola ulertzen dituzte araudiko zenbait elementu?



**HOBETZEKO ARLOAK**

***Datuen jabetza***

✓ **Datuen jabetzari buruz eta datuen erabileraren mugei** buruzko alderdiak ez dira ondo ulertzen. Horien ondorioak ere ez daude argi. Beraz, komenigarria ikusten da ahalegina egitea zalantza horiek argitzeko.

***Datuak lagatzeko irizpideak***

✓ Udaletik beste erakunde batzuetara egiten diren datu lagatzeak arautu eta mugatzeko protokoloak ezartzeko ahalegina egitea komeni da.

***Datuen erabilera okerrak zer dakarren eta ondorioak***

✓ Komenigarria litzateke datu pertsonalen erabilera okerren ondorioak bistaratzea, nahiz eta erabilera okerrak on ustez eginak izan.

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.4. Datu babesaren araudia

### Nola baloratzen dira araudiaren zenbait arlo?

✓ *Segidan araudiarekin zeharka lotutako beste elementu batzuen azterketa xehatua egingo dugu. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak eskatutako azterketa da.*

*Hona hemen elementuak:*

**ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA**

**JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA**

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.4. Datu babesaren araudia

### Nola ulertzen dituzte araudiko zenbait elementu?



ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA

**Sarea dela-eta beldur handiak sumatzen dira. Seguruenik bertan dauzkaten segurtasun neurrien gaineko eta funtzionamendurako eta herritarrei eman beharreko zerbitzurako dakartzaten onuren gaineko informazio faltagatik.**

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.4. Datu babesaren araudia

### Nola ulertzen dituzte araudiko zenbait elementu?



**HOBETZEKO ARLOAK**

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA

**Segurtasun neurrien berri izatea**

✓ Ona izango litzateke udaletxeei horrelako izapideei buruzko informazioa ematea eta egun eskaintzen duten segurtasuna jakinaraztea.

**Baliabideez hornitzea**

✓ **Interneteko konexioa** kontuan hartu beharrekoa da, baina **ez dirudi Datuak Babesteko Euskal Bulegoak horretan ezer egin dezakeenik.**

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.4. Datu babesaren araudia

### Ba al dute Jardunbide Egokien Eskuliburuaren berri?



**ESKULIBURUARI ESKATZEN ZAIONA**

JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA

✓ Udalek eskatzen dute Jardunbide Egokien Eskuliburua honelakoa izatea:

- *"Laburragoa"*
- *"Erraza"*
- *"Praktikoagoa"*
- *"Ereduzko kasuak jasotzea"*
- *"Mugak argi ezartzea"*
- *"Ohiko zalantzak argitzea"*
- *"Udaletxearen egoerara hobeto egokitua"*

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.4. Datu babesaren araudia

### Ba al dute Jardunbide Egokien Eskuliburuaren berri?



JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA

- Badirudi eskuliburua ...
  - **Ez dela oso erabilgarria eguneroko** arazoetarako**.**
  - **Luzeegia** dela eta erantzunak bilatzea nekeza dela.
  - **Kontzeptu zailegiak** dituela udal esparrurako.

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.4. Datu babesaren araudia

### Araudiaren arloan zer da hobetu behar dutena?




**HOBETZEKO ARLOAK**

JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA

***Idazkera eta zehaztasuna***

✓ Jardunbide Egokien Eskuliburua ez da hain erraza udalentzat.

✓ Horregatik, **dokumentu labur bat eskatzen dute, udaleko errealitatea islatzen duena** eta udaletxean ohikoak diren kasuak eta protokoloak lantzen dituena. (maiz egiten diren galderak).

# 2.5. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

**Zer da Datuak Babesteko Euskal Bulegoa udalentzat?**

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.5. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

### Nola ikusten dute Datuak Babesteko Euskal Bulegoa?

✓ Datuak Babesteko Euskal Bulegoa aipatzen denean, udal gehienek uste dute BULEGOA honelakoa dela:

- *"Profesionala"*
- *"Erakunde arrotza"*
- *"kontserbadore samarra"*
- *"Ez oso eraginkorra"*
- *"Legalista"*
- *"BIkoiztua"*
- *"Ez oso enpatikoa"*
- *"Erantzuten geldoa"*
- *"Ez oso argia"*

✓ Datuak Babesteko Euskal Bulegoa **erakunde arrotza** dela irizten diote.

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.5. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

### Zer da Datuak Babesteko Euskal Bulegoari eskatzen diotena?

**ESKAERAK**

✓ Datuak Babesteko Euskal Bulegoa aipatzen denean, udal gehienek honakoak **eskatzen dituzte** ...

*"Argitasuna"*

*"Malgutasuna"*

*"Erantzun azkar eta eraginkorrak"*

*"Jardute dekalogo bat"*

*"Erantzun errazak, ondo ulertzekoak"*

*"Errealitatera egokitzeko"*

*"Inplikazio eta elkar ulertze handiagoa"*

*"Aukerak eta alternatibak emateko"*

*"Arreta zuzeneko telefono bat"*

*"Topaketa bat urtean behin zein premia dituzten jakiteko"*

*"Berritasunen gaineko informazio sistema bat alerta bidez"*

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.5. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

### Nola ikusten dute Datuak Babesteko Euskal Bulegoa?

- ✓ Datuak Babesteko Euskal Bulegoak **ez du lortu udalekin gertutasun harremanik sortzea oro har.**
- ✓ Hori dela eta, **erakunde arrotza da eta ezezaguna da**, eta esan daiteke bi erakundeen arteko harremanak izan direla udalari jarduera okerren bat egin duela esateko.
- ✓ ***Edozelan ere, Bulegoa erakunde profesionala eta kalitatezkoa dela uste dute, eta sinesgarritasuna duela.***

# 2. Udalerriak eta datu babesa

## 2.5. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

### Zer da Datuak Babesteko Euskal Bulegoari eskatzen diotena?

✓ Datuak Babesteko Euskal Bulegoa aipatzen denean, udal gehienek zera eskatzen dute:

**Udalekiko enpatia lantzeko, eta datuak babesteko esparruan udalei eskaerak egitean udalen gaitasuna kontuan hartzeko.**

**JARRERA ENPATIKOA**

# 2.6. Ondorioak

## 2.6. Ondorioak

✓ **1. INDAR IDEIA: datu babesa kudeaketa esparruko aparteko lantzat hartzen da.**

- ✓ Udal erakundeek **informazio kopuru handia kudeatzen dutenez eta informazioak ezaugarri bereziak dituenez**, datu babeseranzko **bidea oso geldoa eta nekosoa egiten du**, **nahiz eta urratsak eman**.
- ✓ **Diskurtsoaren arabera, prozesuak lan handia ematen du** eta zenbaitetan arazoa izaten da udalarentzat eta kudeaketari, mugei, baimenei eta abarrei buruzko zalantzak sortzen dizkio.
- ✓ Kontua da aintzat hartzea udalarentzat **egunez eguneko lanak kudeaketa lan eskerga duela**, eta lan horri datu babesarekin lotutako beste "lan osagarri batzuk" gehitu behar direla.

## 2.6. Ondorioak

✓ **2. INDAR IDEIA: datu babesaren arloko jarduerak eta jarrerak aztertu eta gero, bi udalerri mota daudela geratu da agerian.**

- ✓ Datu babesaren zenbait alderdi udal esparruan aztertu eta gero (datu kudeaketa, araudia...), datu babesaren arloan egindako aurrerapena kontuan hartuta, hainbat udalerri kategoria bereiz daitezkeela uste dugu:
- ✓ Esan daiteke kolektibo 2 daudela. Hona hemen:

**AURRERATUAK**

**EZ HAIN AURRERATUAK**

## 2.6. Ondorioak

1. Udal **aurreratuak**: Datu babesaren esparrua garatuago duten udalak.

- **Fitxategi gehienak deklaratu dituzte.**
- Gaiak **bultzada politikoa izan du barruan**.
- **Ordenagailuetan babes sistemak** dituzte **eta datu informatikoak babesteko sistemak** ere bai.
- **Auditoria eta aholkularitza prozesuak** burutu dituzte borondatez, eta egin beharreko aldaketak egin dituzte.
- Badakite **zerbait araudiaz** eta araudia udal esparruan ezartzeaz.
- Datu babesaren esparruan **lan egiten duten langileak dituzte, horretarako izendatuak**.
- Udaleko **jarduteko** eta herritarrei datuak "emateko" **protokoloak aldatu dituzte**.

# 2.6. Ondorioak

2. Udal **ez hain aurreratuak**:

- **Datu babesaren arloan garapen eskasa** ageri dute.
- **Fitxategi batzuk** dauzkate **deklaratuta edo bat ere ez**.
- Oso **oinarrizko segurtasun neurriak** dituzte **eta baliabide gutxi horiek inplementatzeko**.
- Gehienek **ez dute bultzada politikorik.**
- **Araudiari buruzko ezagutza ez da hain handia.**
- Herritarrekiko hartu emana **betiko ohituren** araberakoak dira datuak emateko orduan.
- Datu babesaren arloko **ardura** ez dago argi esleituta edo **administrarien multzoak bere gain hartutako ardura da. Baina arduraduna modu formalean esleitu, ez eta izendapen formalik egin ere**.

# 2.6. Ondorioak

- ✓ 3. INDAR IDEIA: datu babesaren arloan **udalak zein egoeratan dauden aztertu eta gero**, kolektibo bakoitzaren egoerara egokitutako **hobetze ibilbideak finkatu beharra dagoela antzeman da**.
- ✓ Horretarako, **aztertutako hobekuntza elementu nagusien bilketa egin da**.
- ✓ Ondoko arloei buruzko hausnarketa egin da.

| Azterketa elementuak | HOBETZEKO ARLOAK | |
|---|---|---|
| | AURRERATUAK | EZ HAIN AURRERATUAK |
| Datuak kudeatzeko arloa | | |
| Araudiaren arloa | | |

# 2.6. Ondorioak

| Azterketa elementuak | HOBETZEKO ARLOAK: AURRERATUAK | HOBETZEKO ARLOAK: EZ HAIN AURRERATUAK |
|---|---|---|
| Datuak kudeatzeko arloa | | |
| Datu bilketa | | Prozesuak informatizatzea |
| Datuak izapidetzea | Barruko izapidetze prozesua | |
| Artxibatzea | Paperezko artxiboak babestea | Artxibo informatikoak eta paperezkoak babestea |
| Deklarazioa | Artxiboak eguneratzea | Artxiboak deklaratzea eta eguneratzea |
| Arduradunaren izendapena | | Arduradun formalen falta |
| Herritarrekiko harremana | Herritarrei eman ahal zaizkien datuen mugak | |

# 2.6. Ondorioak

| Azterketa elementuak | HOBETZEKO ARLOAK | |
|---|---|---|
| | AURRERATUAK | EZ HAIN AURRERATUAK |
| Araudiaren arloa | | |
| Legea | Araudia ezagutza/Hizkera teknikoa/Legen arteko hierarkiak/ Legedia versus eraginkortasuna | |
| Jardunbide Egokien Eskuliburua | Idazkera eta zehaztasuna | |
| Datuen erabilera | | |
| Jabetza | Datuen jabetza argi izatea | |
| Lagapena | Datuak lagatzeko irizpideak | |
| Erabilera okerra | Datuen erabilera okerra eta erabilera okerraren ondorioen berri izatea | |
| Izapide elektronikoak | Segurtasun neurrien berri izatea | |
| | | Baliabideez hornitzea |

# 2.6. Ondorioak

- **4. INDAR IDEIA: gaiari buruzko hainbat jardunbide egoki zehaztu daitezke** udaleko arduradunek datu babesaren inguruan duten diskurtsotik.
  - Hobetze arloak zehazteaz gain, **beste elementu hauek ere aipatu behar dira**:

**Azterketa elementuak**

**JARDUNBIDE EGOKIAK**

**AURRERATUAK** | **EZ HAIN AURRERATUAK**

Datuak kudeatzeko arloa

Araudiaren arloa

## 2.6. Ondorioak

| Azterketa elementuak | JARDUNBIDE EGOKIAK – AURRERATUAK | JARDUNBIDE EGOKIAK – EZ HAIN AURRERATUAK |
|---|---|---|
| Datuak kudeatzeko arloa | | |
| Datu bilketa | | Dokumentuak digitalizatzea |
| Datuak izapidetzea | Izapidetzen ari den dokumentaziorako protokoloak ezartzea | |
| Artxibatzea | Paperezko artxiboak kontrolatzeko mekanismoak sustatzea | Artxibo informatikoak eta paperezkoak babesteko mekanismoak ezartzea |
| Deklarazioa | Artxibo informatikoen eguneratzea sustatzea | Paperezko artxiboen deklarazioa hastea |
| Deklarazioa | Paperezko artxiboen deklarazioa sustatzea | Artxibo informatikoen deklarazioa sustatzea |
| Arduraduna izendatzea | | Datu babesaren ardura nor duen formalki izendatzea |
| Herritarrekiko harremana | Herritarrei datuak emateko orduan betiko erara jokatzeko kontua alde batera uztea. | |
| Herritarrekiko harremana | Argitzea zein diren herritarrei eman beharreko informazioaren mugak | Argitzea zein diren herritarrei eman beharreko informazioaren mugak |

# 2.6. Ondorioak

| Azterketa elementuak | JARDUNBIDE EGOKIAK: AURRERATUAK | JARDUNBIDE EGOKIAK: EZ HAIN AURRERATUAK |
|---|---|---|
| **Araudiaren arloa** | | |
| Legea | Legeari buruzko informazioa jasotzea / Hain teknikoa ez den hizkerara itzultzea<br>Legeen arteko hierarkizazioak ezartzea / Legedia eta eraginkortasun uztartzea | |
| Jardunbide Egokien Eskuliburua | Ohiko egoerei buruzko eskuliburu bat egitea | |
| Datuen erabilera | | |
| Jabetza | Datuak herritarrenak direla gogoraraztea aldian behin | |
| Lagapena | Argitzea zergatik ezin diren herritarren datuak beste erakunde batzuei laga, aldez aurretik hitzarmenik edo baimenik ez badago | |
| Erabilera okerra | Agerian utzi herritarren datu pertsonalen erabilera okerrak ekar ditzakeen ondorioak | |
| Izapide elektronikoak | Administrazio elektronikoa bermatzen duten segurtasun neurrien ezagutza sustatzea | |
| | Sustatzea udalak sarera dituen konexioen garapena | Sustatzea udalak sarera dituen konexioen garapena |

## 2.6. Ondorioak

- **5. INDAR IDEIA:** Datuak Babesteko Euskal **Bulegoa nola ikusten duten** eta Bulegoarekin duten harremana alde batera utzita, **eskatzen dute Bulegoak jarrera enpatikoagoa agertu beharko lukeela udalerrien errealitatearekiko.**

  - Datu babesa dela eta, **udalerriak hainbat multzotan sailka daitezke**, eta horregatik uste da Bulegoak **udalerri bakoitzaren gaitasuna eta ahalmena kontuan hartu beharko lituzketela traturako eta exijentziak** egiteko.

# 3. KAPITULUA

# Aldundiak eta datu babesa

# 3. Aldundiak eta datu babesa

- Horren ostean, foru esparruan datu babesaren gaineko azterketa bat egin zen.
- Foru aldundiekin zer ikusia duten datu babesaren arloko alderdi guztiak ikusi ziren.

**Zein datu kudeatzen dituzten**

**Datu babesaren kontzeptua**

**Datu babesaren praktika**

**Datu babesaren gaineko araudia.**

**Datuak Babesteko Euskal Bulegoa**

# 3.1. Zein datu kudeatzen dituzten

**Zein datu kudeatzen dituzte aldundiek?**

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.1. Zein datu kudeatzen dituzten

### Zein datu kudeatzen dituzte aldundiek?

- ✓ Aldundiek oso datu garrantzitsuak kudeatzen dituzte, datu sentsibleak direlako eta datu horiek hedatuz gero, ondorioak ere garrantzitsuak izan daitezkeelako.

- ✓ Datuak bi motatakoak izan daitezke, jatorriaren arabera:

  ***Aldundiek sortutakoak / Herritarrenak diren datuak***

***Baina, edozelan ere, era askotako datuak dira, garrantzi handikoak bai esparru sozialean, pertsonalena nahiz legalean.***

# 3.2. Datu babesaren kontzeptua

**Zer datu babesa aldundientzat?**

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.2. Datu babesaren kontzeptua

### Zer datu babesa aldundientzat?

✓ Datu babesaren esan nahiari dagokionez bi ikuspegi daude:

**Segurtasun arduraduna eta Administrazioak izendatutako langileak**

**Aldundiko langileak**

✓ Batzuk eta besteek eginkizun desberdinak dituzte administrazioan; beraz, datu babesari buruzko pertzepzioa ere ez da bera.

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.2. Datu babesaren kontzeptua

### Zer datu babesa aldundientzat?

✓ Foru administrazioetan bi jarrera daude datu babesari dagokionez:

Garrantzi handia ematen zaio, foru administrazioek kudeatzen dituzten datuak babestu beharra dagoelako.

⇓

**Segurtasun arduraduna**
**eta**
**Administrazioak izendatutako langileak**

Datu babesa ezartzea lan gehigarria dakarren obligaziotzat hartzen da eta egunez eguneko zereginak mantsotzen dituela uste da.

⇓

**Administrazioko langileak**

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.2. Datu babesaren kontzeptua

### Zer datu babesa aldundientzat?

✓ Aztertu ditugun hiru administrazioak erkatuz egindako azterketa bukatu eta gero, esan daiteke ez dagoela desberdintasun aipagarririk datu babesari buruz duten pertzepzioari dagokionez eta datu babesarekiko duten jarrerei dagokienez.

BFA DFB

*DATU BABESA*

# 3.3. Datu babesaren praktika

Zer egiten dute datu babesaren arloan aldundiek?

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dituzte datuak aldundietan?

- ✓ Kapitulu honetan datu pertsonalen babesa aztertuko da foru aldundietako datu arduradunen diskurtsotik jasotako bi ikuspegitatik abiatuta.
- ✓ Datu babesaren kudeaketari dagokionean, bi tipologia aztertu dira:

**Prozedurazkoak elementuak:** foru aldundietan ezarritako protokoloekin zer ikusia duten alderdiak**.**

**Prozedurazkoak ez diren elementuak:** foru administrazioen barruko antolaketarekin zer ikusia duten alderdiak**.**

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dituzte datuak aldundietan?

✓ Prozedurazko elementuek erakusten duten zein den datuek egiten duten ibilbidea foru administraziora heltzen direnetik. Aldundietako datuen arduradunek garrantzitsutzat jotzen dituzte:

**Datuak biltzea**

**Izapidetzea eta barne kudeaketa**

**Artxiboa eta zaintza**

**Fitxategiak deklaratzea**

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dituzte datuak aldundietan?



*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

**Datuak biltzea**

✓ Aldundietan honako urratsak ematen dira datuak biltzean.

1. Sarrera
2. Datuak identifikatzea
3. Erregistratzea
   - Berehalako digitalizazioa
   - Geroko digitalizazioa
4. Dagokion zerbitzura bidaltzea

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dituzte datuak aldundietan?



*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

**Datu bilketa**

- ✓ Datu babesari dagokionez, datuak biltzeko fasea erabat planifikatuta dago.
- ✓ Protokolo kopuru handia dagoenez eta prozesuak digitalizatuta daudenez, datuak berehala eta modu estandarizatuan babestuta daudela uste da.
- ✓ Horregatik, prozesuaren fase honetan ez da ikusten hobetzeko elementurik dagoenik.

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dituzte datuak aldundietan?



*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

**Izapidetzea eta barne kudeaketa**

✓ Datuak izapidetzen direnean, datu babesa dela eta, bi egoera daude:

| Izapidetze informatikoa | Paperezko izapidetzea |
|---|---|
| Argi ezarritako protokoloak eta datuak oso babestuta prozesuan. | Protokoloan ez daude hain finkatuta, eta administrazioaren eraginkortasuna datu babesaren aurretik jartzen da. |

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dituzte datuak aldundietan?



*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

**HOBETZEKO ARLOAK**

**Izapidetzea eta barne kudeaketa**

***Paperezko datuak izapidetzea***

✓ Espedienteen izapidetze faseko datu babesaren egoera dela eta, hobetzeko arloak antzeman dira **paperezko izapidetzean eta kudeaketan.**

✓ Hala ere, foru aldundietan datuak babesteko izendatutako pertsonek adierazi dute datu babesaren gaineko elementuak eta izapidetzeen eraginkortasuna uztartu behar direla.

✓ Horrela eginda, funtzionarioen erantzukizunpean ere uzten da datuak babesteko prozesua.

**Babesa eta eraginkortasuna uztartzea**

*“Funtzionario egiten zarenean, izendapena sinatu eta konpromisoa hartzen duzu"*

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dituzte datuak aldundietan?



*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

**Artxiboa eta zaintza**

✓ Artxibatzeko unean izapidetze fasean gertatzen diren antzeko egoerak gertatzen dira.

**ARTXIBO INFORMATIKOA**

↓

Argi ezarritako protokoloak daude eta fitxategietan sartzeko datuek babes handia dute.

**PAPEREZKO ARTXIBOA**

↓

Protokoloak ez daude hain finkatuta, eta **administrazioaren eraginkortasuna** datu babesaren aurretik jartzen da. Denbora tarte handia igaro ohi da dokumentu bat atzitzen denetik artxibatzen denera arte.

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dituzte datuak aldundietan?



*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

**HOBETZEKO ARLOAK**

**Artxiboa eta zaintza**

***Hara eta hona dabilen dokumentazioa***

✓ Hobetzeko elementua paperezko artxiboarekin lotuta dago.

✓ Datuen izapidetze fasean bezala, datuak babesteko izendatutako langileek agerian utzi dute datu babesaren gaineko elementuak eta izapidetzeen eraginkortasuna uztartu egin behar direla.

*“Nik datu mordoa ditut kutxetan eta datuak erabiltzen ditudan bitartean ez daude artxiboan"*

# 3. Aldundiak eta datu babesa
## 3.3. Datu babesaren praktika



## Nola kudeatzen dituzte datuak aldundietan?

*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

### Artxiboak deklaratzea

✓ Artxiboen deklarazioa ere artxibo motarekin lotuta dago.

**Artxibo informatikoak deklaratzea**

↓

Fitxategia sortzean beti egiten da**. Gerora, aldaketak deklaratzen dira.**

**Paperezko artxiboak deklaratzea**

↓

**Artxiboak era generikoan deklaratzea**; edukiak eta aldaketak ez daude egoera berean.

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dituzte datuak aldundietan?



*PROZEDURAZKOAK ELEMENTUAK*

**HOBETZEKO ARLOAK**

**Artxiboak deklaratzea**

**Paperezko artxiboak deklaratzea**

- Badirudi argi dagoela paperezko betiko artxiboak eguneratzeko eta deklaratzeko premian jarri behar dela arreta.
- Fitxategien arduradunek badakite fitxategien egoera eguneratu beharra dagoela, eta ahalegina egin behar dela ahal den neurrian horien egoera fitxategi informatikoei ezartzen zaizkien metodologiekin parekatzeko.



**Paperezko artxiboak deklaratzea** → **Metodologia informatikoak inplementatzea**



# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dira datuak?

✓ Prozedura elementuak ez direnen artean badira alderdi bi aldundietako datuen arduradunek nabarmendutakoak:

**Datuen arduradunaren figura**

***eta***

**Herritarrekiko harremana**

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.3. Datu babesaren praktika

## Nola kudeatzen dituzte datuak aldundietan?



*PROZEDURAZKOAK EZ DIREN ELEMENTUAK*

**Datuen arduradunaren figura**

✓ Datu babesa oso garatuta dago aldundi guztietan, batez ere informatikoak badira.

✓ Hori dela eta, figura garrantzitsuak sortu dituzte prozesuak abian jartzean eta prozesuak bermatzean.

✓ **Aldundietan datuak babesteko bi figura daude:**

**Administrazioak izendatutakoak:**

Funtzionarioei datu babesak duen garrantzia jakinarazteko eta betearazteko erantzukizuna dute.



**Sozietate publiko espezializatuak:**

Datu babesa ahalbideratzeko tresnak egiteko eta ezartzeko sortutako enteak.



# 3. Aldundiak eta datu babesa
## 3.3. Datu babesaren praktika

## Nola kudeatzen dituzte datuak aldundietan?



*PROZEDURAZKOAK EZ DIREN ELEMENTUAK*

**Herritarrekiko harremana**

✓ Aldundiek, beste erakundeek ez bezala, herritarrekin harremana izan ohi duten arren, ez dira informazio pertsonala eskatzeko lekuak izaten; beraz, alderdi horretatik ez dute arazorik izaten.

✓ Herritarraren eta aldundien arteko harremanaren oinarrian dago herritarrak nahitaez jo behar duela aldundira, aldundiak eskatzen dion informazioa ematera.

✓ **Aldundiek eskatzen diete informazioa herritarrei eta ez herritarrek aldundiei.**

**Erakundea – Herritarra**

**Nahitaezko harremana**

*"Herritarrek nahitaez eman behar dizkigute datuak eta baimena ere eman behar digute. Identifikatu egin behar duzu zeure burua eta aitorpena egin behar duzu, legeak dioelako".*

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.3. Datu babesaren praktika

### Nola kudeatzen dituzte datuak aldundietan?



*PROZEDURAZKOAK EZ DIREN ELEMENTUAK*

- Foru administrazioetan argi dago datu babesaren ezarpena zeinen erantzukizuna den.
- Datu babesa bermatzen duten neurriak inplementatzen dituzten sailak eta sozietate publikoak daude.
- Horrek dakar babes protokolokoak asko garatzea, eta, ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan datu pertsonalen babesa ezartzeko “lasterketan” foru aldundiak oso ondo kokatuta daude.
- Herritarren eta aldundien arteko hartu emanaren ondorioz herritarrekiko kontaktuak ez dakar datu babesarekin lotutako arazorik.
- Egoera kontuan hartuta, ez da argi ikusten zer hobetu daitekeen.

# 3.4. Datu babesaren araudia

**Zer datu babesari buruzko araudia aldundientzat?**

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.4. Datu babesaren araudia

### Datu babesaren araudia ezaguna da?

✓ Foru aldundiek araudiekiko dute harremana kontuan hartuta, datu babesari buruzko araudiaz honakoa dela uste dute:

*"Zorrotza"*

*"Hasieran iluna"*

*"Handinahia"*



*"Aldaketak egin beharra dakar"*

*"Ezartzen zaila"*

*"Baliabideak eskatzen ditu"*

*"Konplexua"*

✓ Segurtasunaren arloko profesionalek ere uste dute datu babesari buruzko legea abian jartzeak kostu handia dakarrela.

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.4. Datu babesaren araudia

### Nola baloratzen da Datu babesaren araudia?



✓ Nolabait datu babesaren esparruko profesionalak direnen kolektiboarentzat ere …

***… araudia ulertzen oso zaila da …***

***… eta ezartzen ere bai …***

✓ Eta horrek esan nahi du eguneroko laneko prozesuak berez zailak badira, datu babesak gehiago zailtzen dituela bai datu babesaren eta legea ezartzearen arloko espezialistentzat bai ohiko lanetan ari direnentzat (funtzionarioak), betekizunak asko direlako.

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.4. Datu babesaren araudia

### Araudiaren arloan zer da hobetu behar dutena?




**HOBETZEKO ARLOAK**

**Legeak hierarkizatzea**

- ✓ Beste kolektibo batzuekin gertatzen den moduan, datu babesaren esparruan ere aldundiak legeak ezin uztartuta dabiltza.
- ✓ Aurretik ere badaudenez **datu babesari eta beste arlo batzuei buruzko zenbait arau** (Europako arauak, autonomia erkidegokoak, informaziorako eskubidea, funtzio publikoaren legea... ), ez dago argi zein dagoen zeinen gainetik. Horregatik, komeni da **arauen arteko hierarkiak argitzea.**

**Legediaren inguruko zalantzak argitzea**

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.4. Datu babesaren araudia

### Araudiaren arloan zer da hobetu behar dutena?




**HOBETZEKO ARLOAK**

***Araudia ezartzeko modu zurruna***

- ✓ Ematen du datu babesari buruzko legedia ezartzean arazoak sortzen direla aldundietako eguneroko lanean.
- ✓ Foru erakundeetan segurtasuna profesionalizatu bada ere, **zaila da legeak agindutako datuei nola ezarri behar zaien ulertzea, batez ere, aplikazio informatikoei dagokienez**.
- ✓ Zentzu horretan, espektatibak leuntzeko eskatzen da, ahal den neurrian araudia aldundien gaitasunetara egokituz.

**Espektatibak gaitasunera egokitzea**

# 3. Aldundiak eta datu babesa

## 3.4. Datu babesaren araudia

### Nola baloratzen dira araudiaren zenbait arlo?

✓ *Datuak babesteko araudiarekin lotutako hainbat elementu garrantzitsu aztertuko ditugu segidan:*

*Hona hemen:*

